

**2019ko OTSAILAREN 19ko
UDAL OSOKO EZOHICO BILKURA**

Elduainen, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deira, 2019ko otsailaren 19an, arratsaldeko zortziretan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ez ohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Jose Angel Urkizu Odriozola Alkatearen lehendakaritzapean.

Zinegotziak:

- Maite Bizkarrondo Arzallus
- Miren Amaia Askasibar Agirre

Ez da/dira batzarreratu

- Juan Ramon Gurrutxaga Lasa
- Goreti Soroa Martinez
-

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidentek, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.

GAIEN ZERRENDA:

ALDERDI ERABAKITZAILEA

1. "TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA. TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA" MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.
2. "GURASOS-EN MANIFESTUA" ONARTZEKO PROPOSAMENA.
3. TOLOSALDEA SAHARAREN ADIERAZPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.
4. MARTXOAK 8. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

LEHENENGO PUNTUA:

“TOLOSALDEKO EUSKALGINTZAREN GOBERNANTZA EREDU BERRIA. TOLOSALDEKO EUSKARAREN MAHAIA” MOZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren irakurketari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Tolosaldeko herritar gehien-gehienak euskaldunak dira: eskualdeko biztanleen %75 euskal hiztuna da, beste %10ak ulertu behintzat egiten du, eta belaunaldi gazteenak unibertsalizazioaren muga daude.

Euskal Herriko zonalde euskaldunen artean jartzen gaitu horrek eta hau, gure ustez, harrotasunez ez ezik, erantzukizunez hartu behar da.

Globalizazio garaioan, hiztun komunitate txikiok ahalegin berezia egitera behartuta gaude etsi ez ezik gure hizkuntzen etorkizuna bermatzeko.

Geure egoeran, posible da Tolosaldean euskara harremanetarako, gozamenerako eta lanerako hizkuntza nagusia izatea, erabateko unibertsalizazioa lortzeko urratsak ematea eta, horrela, hizkuntzen indarberitze eta normalizazioan erreferente izatea, benetako arnagunea euskararentzat.

Baina ausardiak, koherentziaz eta eraginkortasunez jokatzeko eskatzen digu horrek: azken hamarkadetakoa lorpen izugarriak gutxietsi gabe, euskalgintzaren ibilbidearen irakurketa kritikoa egitea, lan esparru partekatua eraikitzea, jomugak adostea eta norabide berean jardunez herritarrei harrotasun eta erantzukizun hori transmititzea. Hori da dagokiguna.

Soka mutur horri, non hari mutur asko txirikordaten diren, heldu dio 2018an zehar gai horretansakontzen aritu den Tolosaldeko Euskararen Mahaia sustatzeko Lan Mahaia.

Hemen elkartu dira euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren sentsibilitateak eta lan ereduak, eta euskararen etorkizuna bermatu eta beratu eskualdeko hizkuntza nagusia izatea helburu duen gobernantza eredu berrizaila eta erreferentziazkoa eraikitzeko urrats sendoak eman behar direla izan da ondorio nagusia.

Euskalgintza instituzionalaren eta sozialaren arteko elkarlana, eskualde ikuspegia, estrategia eta helburu komunak, berdintasuna eta zeharkakotasuna, eta eraginkortasuna eta lidergo partekatua dira jorratu eta sakondu beharreko kontzeptuak, guztiak, xede honen zerbitzura: **TOLOSALDEAN EUSKARA HIZKUNTZA NAGUSIA IZATEKO ESTRATEGIA BERRITZAILE ETA INKLUSIBOA.** Hitz gutxitan azaldutako gogoeta hori eta bere baitan hartzen dituen ekimenak, pasa den urrian eta abenduan egin ziren bi batzarretan xeheki aurkeztu zizkion aipatutako Lan Mahaia eskualdean gauzatzen diren hizkuntza politika desberdinen eragileen ordezkariak zabalari. Eta berretsiak izan ziren.

Horregatik guztiagatik, ordezkatzeko dudak erakundearen izenean, **ADIERAZTEN DUT:**

1. Tolosaldea eskualdeko Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil udalerrietan -horietako batean, batzuetan edo guztietan- euskararen etorkizuna bermatzeko jarduerak sustatzeko, garatzeko edo babesteko erantzukizuna dugula, legez ezarria edo, eta batez ere, geure desioz onartua.
2. Bat egiten dugula eskualde ikuspegiko hizkuntza plangintza diseinatu eta aitzineratzeko euskalgintza instituzionala eta sozialaren bilgunea, hau da, Tolosaldeko Euskararen Mahaia, eratu eta indartzeko asmoarekin.
3. Bat egiten dugula Tolosaldeko Euskararen Mahaiak izango dituen Misio eta Helburuekin:
 - a. Misioa: Tolosaldean euskara indarberritu eta bere erabilera normalizatzea, berdintasun eta aniztasun balioen oinarrietatik, benetan komunikazio eta kohesio hizkuntza nagusia izan dadin bere lur-eremu osoan.
 - b. Helburu estrategikoak:
 - i. Gobernantza eredu berri bat oinari eta sostengu duen eragile instituzional, sozial eta kulturalen elkargune eta erabakigunea antolatzea.
 - ii. Eskualde mailako hizkuntza politika definitzea.
 - iii. Normalizazio errealia lortzeko baliabideak adostu eta abian jartzea.
 - iv. Gizarte esparru guztietako eragileekin elkarlana bermatzea, euskara beren eguneroko jardunean hizkuntza nagusia, komuna, izan dadin.
 - c. Helburu estrategikoak:
 - i. Bizikidetzaren eremu zabalean (generoa, aniztasuna, integrazioa ...) inklusio bidea egiteko diskurtsoa eta metodoa landu eta garatzea.
 - ii. Garapen sozio-ekonomikoarekin uztartzea.
 - iii. Bizitza sozio-kulturala euskaraz izan dadin ahalbidetzea.
4. Ordezkatzen dudana erakundeak gertu dagoela Tolosaldeko Euskararen Mahaiaren egikaritze prozesuan parte hartzeko etalankidetzaren eredu honetan sakontzeko, gure presentzia beharrezkoa den foro edo lan-mahaitan parte hartuz, gure esperientzia edota hizkuntzaren normalizaziora bideratutako baliabide teknikoak egitasmoaren zerbitzura jarriz, edota, hala bada gogokigu (Udalak, Gipuzkako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak) proiektu hau eta bere baitan adostutako ekimen zehatzak ekonomikoki

sustengatuz.

5. Edonola ere, hartutako konpromiso hauek ez dutelamurrizketarik edo kalterik eragin behar ordezkatzeko dudaren erakundearen autonomian eta egitekoetan, eta konpromiso hau indartuko dela egitasmo bateratuak gauzatzen diren heinean, baliabideak optimizatzen diren heinean, eta jarduera eraginkorragoa eta errentagarriagoa den heinean.

Presidentziak aurkeztutako mozioa bozkaturik, onartua gertatzen da.

BIGARREN PUNTUA:

GURASOS-EN MANIFESTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren manifestuari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Jendarteak ez du onartzen Donostiako (Zubieta) erraustegia martxa jartzeak osasunean eta ingurugiroan sortzen duen arriskua.

Arrisku horretaz ohartarazten dute egin diren ikerketek; batez ere, "Erraustegiaren arriskuaren hautematea" izeneko txostenak, Biodonostiak eta Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako osasun zuzendariordeak idatzita.

Hitzartu prozesu sozialak hondakinen kudeaketa osasuntsu eta jasangarriaren inguruko eztabaida sortu du, baita eraginkorrenak diren neurri politikoak zehaztu ere. Ikuspegi demokratiko sakon batekin egindako ekimena izan da, eta profesional anitzek osatutako Berme Batzordearen oniritzia izan du.

Herritarrek ondutako 2019-2030 Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plana ekimen horren emaitza eta ondorioa izan da. Bertan, jendarteak lehenetsitako prebentzio printzipioan oinarrituz, alternatiba teknikoa eta ekonomikoki bideragarria jasotzen da.

Azken hamabi urteotako agenda politikoa baldintzatu duen hondakinen gatazkak behin betiko irtenbide bakarra du: erakundearen eta antolatutako jendarte zibilaren arteko elkarrizketa eta elkarlana. Erraustegia martxan jartzeko alde bakarreko irtenbideak ez du ixten ezta bideratzen ere, inondik inora, gatazka. Are okerrago: beste 35 urteetarako luzatzen eta betikotzen du.

Osasuna, ingurugiroa, kohesioa eta bake soziala aukera bat merezi duten balioak dira. Horregatik guztiagatik behean sinatzen dugunok:

LEHENENIK.- Bat egiten dugu Hitzarturen Berme Batzordeak 2018ko abenduaren 29an

Gipuzkoako Ahaldu Nagusiarri eta Batzar Orokorretako presidenteari egindako eskaerarekin, non Hitzarturen ordezkariarekin elkartzea, ehundutako prozesua eta emaitzak aztertzea, eta elkarlanerako bideak ireki ditzatela eskatzen den; beti ere hondakinen kudeaketa osasuntsua eta jasangarria helburu izanik, eta adostasun sozial zabalean oinarrituta.

BIGARRENIK.- Bat egiten dugu GuraSOsek egin duen eskaerarekin; hots, erraustegian oinarritzen den Hiri Hondakinen Kudeaketa Planaren eztabaida eta onarpena gelditzea aipatutako elkarrizketa eta adostasun prozesua errazteko eta bideratzeko.

HIRUGARRENIK.- Bat egiten dugu GuraSOsek deitzen dituen deialdiekin. Mahai-inguruak, informazio bilerak, zein antolatutako manifestazioekin.

Presidentziak aurkeztutako manifestua bozkaturik, onartua gertatzen da.

HIRUGARREN PUNTUA:

TOLOSALDEA SAHARAREN ADIERAZPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak mozioaren manifestuari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Saharar errepublika arabiar demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenean, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Tolosaleako udalbatzei ondoko mozioa aurkezten dio hurrengo ohiko plenoan eztabaidatu bozkatu eta onartu dezan.

Udalbatza honek ondokoa adierazi eta eskatzen du:

1.-Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan etengabe gertatzen diren manifestazio eskubidearen zanaketa, atxiloketak, torturak eta tratu txarrak, bortxaketak, desagerketak, deportazioak eta orokorrean giza eskubideen aurkako erasoen salaketa irmo eta erabateko gaitzespena adierazten du.

2.-Mendebaldeko Sahararako Erreferendumaren Nazio Batuen Erakundearen Misioa (MINURSO) giza eskubideen arloko eskuduntzak izan dezan eskatzen du, Nazio Batuen erakundeak (NBE) munduan zehar hedaturik dauzkan misioen artean giza eskubideen arloa baztertzen duen misio bakarra izateari utzi diezaion.

3.-Sahararrei eta pertsona orori dagokigun mugimendu askatasunaren errespetua eta Mendebaldeko Saharako biztanleak zatitzen duen 2600km luze den lotsaren harresia eraistea eskatzen du.

4.-Mendebaldeko Saharako baliabide naturalen legez kanpoko ustiatzeari uko egitea eta zehazki,saharar arrantza bankuetan arrantza egiteko Europar batasuneko (EB) eta Marokoko

estatuaren arteko ituna etetea eskatzen du.

5.- Europar Batasuneko (EB) gainontzeko estatuekin batera, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) autodeterminaziorako eta independentziarako eskubidea aitortzea eta nazioarteko zuzenbidean jasotako jurisprudentzian oinarrituz, Mendebaldeko Saharako kolonizazio prozesua amaitzea eskatzen du.

6.- Espainiar estatuko diputatuen kongresuak ebatzitakoa behingoz betetzea eta gerran aurkitzen diren estatuei, Marokokoa kasu, armak saltzea debekatzen duen ebazpena betetzea, hau da, bere legedia betetzea eskatzen du.

7.-Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 43. urteurrenarekin bat etorriz, 2019ko Otsailaren 27an Mendebaldeko Saharako bandera zuen udaletxean zintzilikatzea adostea.

Presidentziak aurkeztutako manifestua bozkaturik, onartua gertatzen da.

LAUGARREN PUNTUA:

MARTXOAK 8. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA ADIERAZPENA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkateak adierazpenari manifestuari ekiten dio, izanaz bere letraz letrazko edukia:

Gizarteak mezu argia jaso zuen 2018an, Mugimendu feministak Martxoaren 8rako egindako emakumeen lan-eternaldi deialdiari eman zitzaion erantzunaren aurrean: kaleak bete ziren eta elkarlan-sareak sustatu, emakumeek beren aukera-berdintasuna erreklamatzeko abian jarrita zuten borrokak atzera bueltarik ez zuela.

2019rako ere indarrean jarraitzen dute emakumeen aldarrikapenek, "Bizitzak Erdigunera!" lelopean. Aurten ere, emakumeen bizitzak jasangarri, libre, anitz eta duinak izateko eskaerak kaleak hartuko ditu. Beharrezkoa da emakumeen lan-prekarietatea eta pobrezia salatzea, indarkeria matxista guztien aurka egitea, eta bazterkeria eta arrazakeriari uko egitea.

Gizarte honen barnean emakumeengan eragiten duten zapalkuntza eta diskriminazio-sistema guztiak desagerrarazteko lanean gure udaletik ere Martxoaren 8an Emakumeok planto egitea eta Bizitzak Erdiguneari jartzea aldarrikatuko dugu.

Eta zer esan nahi du azken horrek, zehazki?

Gure bizitzak sostengatu eta beroriek erdiguneari jartzeko ordainduak eta ordaindugabeak diren lan guztiak beharrezkoak diren heinean, nagusiki emakumeoi egokitu zaigun zaintza-lan hori guztia eremu pribatu horretatik atera behar dugula; hau da, zaintza eta etxeko lanen

ardura sozializatu behar dela eta gizonek eta erakunde publikoek ardura zuzenak hartu behar dituztela.

Denboraren erabilera orekatzea erabat estrategikoa eta gakoa da berdintasun-politikak eraginkorragoak izan daitezen. Europako Berdintasun Adierazleak kontuan hartzen dituen esparruetatik Denborakoan eragiteak, Boterea, Ezagutza, Dirua eta Enpleguetako domeinuetan eragitea ere badakar.

Aurrekari hauek aintzat hartuta, Elduaingo Udalak erabaki hauek hartzen ditu:

- ❖ Elduaingo Udalak ardura hartzen du berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutzeko.
- ❖ Elduaingo Udalak ardura hartzen du zaintza-lanak bere politika publikoen erdigunean jartzeko.
- ❖ Elduaingo Udalak, Mugimendu feministak deitutako greba dela eta, ardura hartzen du udaleko emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak emateko.

Azkenik, herritarrak deitzen ditu Emakumeen Nazioarteko Egunagatik Mugimendu feministak Martxoaren 8an deitutako mobilizazioetan eta ekitaldi desberdinetan aktiboki parte hartzera.

Presidentziak aurkeztutako adierazpena bozkaturik, onartua gertatzen da.

Eta, 20.25 ordu direnean, lehendakariak batzarra amaitutzat jotzen du, eta gertatuakoaren berri agerian gera dadin, Alkatearen oniritzia jasota, akta hau prestatu eta sinatzen dut.

Elduain, 2019ko otsailaren 19an.

O.e.
Alkateak ,

Jose Angel Urkizu Odriozola

Idazkari-Kontu-Hartzaileak,

Maria Pilar Garmendia Miguel